

Ipuin kontalari baten saioa izango da gaur Anoetan

**Ostegunean ' Nola kontatu istorio ez sexistak umeei ' tailerra
egingo dute**

ANOETA.

Anoetako Udaleko Kultura sailak ipuin kontaketa saioa antolatu du gaurko, udal liburutegian, 18.00etan, Maite Francoren eskutik.

Haur Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako ikasleei zuzendutako ikuskizuna izango da, hau da, lau eta bost urte dituzten haurrentzat. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, saioa hasi ondoren gelako atea ez irekitzeko garaiz iristea komeni da.

Honez gain, ostegunean tailer praktikoa egingo dute Anoetako ikastolan Nola kontatu ipuin ez sexistak umeei, izenburupean. Gurasoentzako saioa izango da eta 17.15ean hasiko da.

Bestalde, Anoetako Udalak Irurakoarekin bat eginda Trebetasun sozialak: aldaketak eta erronkak emakumeen bizitzan tailerra antolatu du. Abenduaren 11, 13, 18 eta 20an eskainiko dituzte eskolak arratsaldez eta saio bakoitza bi ordukoa izango da. Izena eman nahi duenak Anoeta edo Irurako udaletxera agertu beharko du horretarako. Matrikulak bost euro balio du eta abenduaren 4a baino lehen eman behar da ikastaroan izena. >m.s.s.